

HEZKUNTZA ESKAINTZA AIARALDEAN

Urratsez urrats etorkizunera



HAUR HEZKUNTZA • LEHEN HEZKUNTZA • DBH

EDUKIZ ETA PUBLIZITATEZ OSATUTAKO GEHIGARRIA

ESKOLA PUBLIKOAK



Ikaslearen autonomia lantzen dugu

Amara berri sistema: Ikaslearen autonomia lantzen dugu, bera delako ikaskuntzaren protagonista
Ikaskuntza kooperatiboa
Haur eskola ikastetxean bertan (0-2 urte)

email: 010165aa@hezkuntza.net

ETXAURREN IKASTOLA



Ibaguen auzoa, 1
ZUHATZA
945 18 70 00



Betiko eskola, indar berrituta

Goizeko gela 07:40-09:30
Lehen Hezkuntzan B eta D ereduak
Bidelaguna indartze proiektua
Txoko digitalak 5 urtetik aurrera
Negutegia

email: 010327aa@hezkuntza.net

MENDIKO ESKOLA



Lucas rey kalea, 15
AMURRIO
945 89 04 81



Eskola txikien sarea

Goizeko gela 7:45-09:30
Eleaniztasuna: "arts" ingelesez lehen hezkuntzan
Hezkuntza laguntzaile natiboa
Barnetegia ingelesez
Zientzia gela
Bidelaguna proiektua (errefortzuak)
Negutegi eta oilategia
Motxila ibiltaria

email: 010003aa@hezkuntza.net

ZABALEKO IKASTETXEA



S. Jose Auzoa
AMURRIO
945 89 04 62

www.zabalekolhi@hezkuntza.net



Bizi Artziniega, mundua deskubritu

Sare hezkuntza
STEAM gela
Matematika manipulatioen irakaskuntza.
Kontzientzia fonologikoa
Goizeko gela: 8:00-09:00

email: 010010aa@hezkuntza.net

ARTEKO GURE AMA HERRI IKASTETXEA



La Bárcena, 1
ARTZINIEGA
945 39 60 46
www.artekogureama.com



Kalitatezko hezkuntza, zuegandik gertu

Haur Hezkuntza eskola (2-6 urte)
Amara Berri Sistema: Jolasa irakaskuntzaren oinarria.
Ikasleak irakaste-ikaste prozesuaren protagonistak, naturaz inguratutik.
Lan erritmoetara egokitutako baliabideak eskaintzen ditugu.
Irakasleak eta familiak elkarlanean.
Goizeko gela: 08:00-09:00

OKONDO ESKOLA



Irabien 89
OKONDO
945 89 81 27
688 81 38 06
@eskolaokondo



Familiekin elkarlanean

Guraso elkaratek kudeatutako jantokia, bertoko eta inguruko elikagai ekologikoz.
Goizeko gela 08:00-09:30
Patioa birnaturalizatzeko proiektu pilotoa
Ikasketa kooperatiboa
Liburutegia 18:30 arte

email: 014379aa@hezkuntza.net

URDUÑA HERRI IKASTETXEA



San Francisco, 3
URDUÑA
945 38 35 04

ZARAOBE INSTITUTUA



Etxebarriaur, 8 Amurrio 945 39 30 00



HEZKUNTZA ESKAINTZA:

- Derrigorrezko bigarren hezkuntza (B eta D ereduak).
- Ordutegi trinkoa 08:30-14:30
- Batxilergoa D ereduak
- Frantsesa 1. mailatik aurrera
- Lanbide heziketa: oinarritzko, erdi mailako eta goi mailako zikloak.
- Hezibei Irakaskuntza (lanbide heziketa)
- Lanbide ikastaroak
- Digitalizazioa: Ordenagailu bana ikasleen eskura

ZERBITZUAK:

- Jantokia eta eskola garraioa
- Kirol instalazio berritatuak
- Orientazio akademiko profesionala
- Gappa gabinete psikologikoaren laguntza
- Lan poltsa

PROIEKTUAK:

- Hedatze (errefortzuak eta tailerrak DBHn)
- Bidelaguna
- Aniztasunaren trataerareko proiektuak: HBSP, CD
- Agenda 2030
- Praktikak atzerrian (LH)
- ERASMUS (frantsesa)
- Euskararen normalkuntzarako proiektua
- IKT heldutasun 2.maila
- Erronketan oinarritutako irakaskuntza (Lh)

email: zaraobe@zaraobe.net
www.zaraobe.net
twitter

“Gela zein ikastetxe mailako proiektuek eskola bizitzaren ardatza izan behar dute”

HEZKUNTZA SAILAK, LOMLOE LEGEAREN HARIRA, ALDAKETA SAKONA PROPOSATZEN ARI ZAIE IKASTETXEEI. FUNTSEZKO KONPETENTZIAK, EREMUKAKO IKASKETA, IKAS-EGOERAK, IKASKUNTZA AKTIBOA, DIGITALIZAZIOA, ELEANIZTASUNA, INKLUSIBITATEA ETA EKITATEA IZANGO DIRA HURRENGO URTEETAKO LERRO NAGUSIAK.



Miren Viteri, Itziar del Valle eta Roberto Marín.

Nola ikusten duzue datorren aldaketa hau?

Roberto: Hezkuntza sistema beti mugimenduan dago, askotan iruditzen zaigu ereformak metatzen direla bata bestearen atzetik; baina, alde batetik, normala da, gizartea eta honen beharrak ere etengabe aldatzen direlako. Dena dela, Zaraoben, azken urteetan emandako urratsak orain datorren erreformaren ildo bereetik joan dira, hala nola inklusibitatearen aldeko apustua, ikasgaien arteko proiektu komunak eta ikasgelen digitalizazioa. Beraz, prest sentitzen gara datozen urteetako erronkei aurre egiteko.

Azken urteetan Mariakaren kondaira izan da aitzakia ikasgaien arteko proiektu komun bat garatzeko. Horrek jarraipenik ba al du?

Miren: Mariaka tankerako proiektuak tresna ezin hobeak dira, guztion inplikazioa lortzen baitute. Aurtengo proposamenak, 'Txintxarrien barruan', Saraubeko mahaia hartzen du aitzakia. Aiarraldeko historia eza-

gutzeko ezinbesteko elementua da hau. Aiarrako udaletxean oraindik gordetzen dira XIX. mendera arte bozkak egiteko erabiltzen ziren zilarrezko txintxarriak. Abiapuntu horretatik konpetentzia ezberdinak lantzeko aukera izango dugu. maila eta ikasgai ezberdinetan.

Aurten jolas-orduak dinamizatzeko ekintzak ere jarri duzue martxan

Itziar: Bai, hala da. Proiektu batzuek ikasleen ongizatea hobetzea dute helburu; gazteak gustura egotea oinarritzat baita ikaste prozesu egokia bermatzeko. Bizikasi proiektua, adibidez, bullyingaren prebentzioan eta elkarbizitzan zentratzen da. Patioa dinamizatzeko proiektuak, bere aldetik, atsedenearen esperientzia hobetzea nahi du.

Heziketa fisikoko mintegikideak dira patioak dinamizatzeko arduradunak. Kurtsoan zehar, atsedenean, kirol eta joko ezberdinak praktikatzeko dira, proiektuak ezarritako programazioari jarraituz.

Lehen Hauspoa zena orain Hedatze da.

Roberto: Funtsean proiektu berdinak dira, arratsaldeko erreformatuak eta tailerrak, alegia. Guretzat ekimen hau estrategikoa da. Izan ere, pasa den maiatzean gurasoek, ikasleek eta irakasleek aho batez bozkatu zuten klaseko erreformatu eta tailer hauek mantentzearen alde, orduz trinkoarekin batera. Proiektu honetan denok inplikatzeko gara, irakasle guztiak, ikasle gehienak, guraso elkarteak...

Eskola erreformatuak oso garrantzitsuak dira ikasgai gaitzizkoak dituzten ikasleentzat. Horri esker eskola porrota izugarri jaitzi da, kurtso erreformak nabarmentzeko salbuespeneko neurria bihurtuta. Baina, ez hori bakarrik, Hedatze orduetan tailer desberdinak eskaintzen dira, batzuk arrakastatsu bihurtu direnak. Aurten, adibidez, gazte asko xakera zaletu dira, eta San Tomas jaiaren egunean 30 ikasle gora hartu zuten parte sekulako ikusmina sortu zuen txapelketa batean.

Booktuberrak Mendiko Eskolan

Urteak dira Euskal Eskola Publikoa informazioaren eta komunikazioaren teknologien esparruan lan egiten ari dela. Alor horretan Amurrioko Mendiko Eskolan ere aurrerapauso nabarmenak eman dituzte azken ikasturtean. “Gaur egungo gizartean ematen diren etengabeko aldaketek ikasketa-irakas-kuntza metodologian eragin zuzena dute, honen adibide delarik irakurketa eta idazketa prozesua”, adierazi du Mendikoko irakasle lantaldeak.

Aldaketa horiek guztiak baliatuz tresna digital berriak ezarri dituzte egunerokoan, eta horren adibide dira Booktuber eta Bookflix proiektuak. Bi egitasmoek idatzizko zein ahozko ekoizpenak lantzea eta irakurzaletasuna ikasleen artean in-

dartzea eta bultzatzea dute helburu.

Booktuberrak

Booktuber programaren kasuan, ikasleek etxean irakurritako liburuen laburpen eta iritzi bideoak ekoizten dituzte. “Ikasleak ikasketa prozesuaren erdian daude, ikasleek iritziak jasotzen dute, eta irakurketa beste era batean disfrutatzen dute” adierazi dute Mendiko Eskolako irakasleek.

Bookflix programarekin, ordea, irakurritako liburuen inguruko idatzizko ekoizpenak sortzen dituzte ikasleek eta eskolan sortutako blog batean partekatzen dituzte. Horrela ikasleek irakurritako liburuen iruzkinak elkarbanatzeko aukera daukate.

Auzoa protagonista Zabaleko Eskolako horma-irudi berrian



Eskola komunitatearekin elkarlanean hasi diote Zabaleko Ikastetxeko patio estaliko hormak berriz margotzeko. Asfaltetik guztien buruan ibili den ideia izan da. Zuzendaritzak ataldetik nabarmendu duten arabera, "Patio estaliaren hormetan zeuden irudiak oso zaharkituta eta desitxuratuta zeuden, eta beharrezkoa ikusten genuen eskolako patioari itxura berri bat ematea.

Eskola komunitatea osatzen duten lagun guztien parte hartzearekin abiatu zuten prozesua, baina segituan ikusi zuten ezinbestekoa San Jose auzoko elkarte, eragile eta auzokide norbanakoak patioaren eraberritze prozesuan integratzea. Horretarako, eskolako guraso elkarteak auzoko eragile bakoitzari patioan irudi edo marraz-

ki bat egiteko proposamena luzatu zion. Hartara, Auzoko Jai Batzordea, Aurreraka Zaharberritze elkarte, Amurrio Tennis Kluba, Tipi-Tapa Haurreskola, Amurrio Racing Slot elkarte, Kuskua elkarte, Margoketa elkarte eta Zabaleko eskolako Guraso Elkarteak izango dira aurrerantz Zabaleko patio estaliko horma apainduko duten eragileak.

“Elkarte zein norbanako guztien erantzuna oso positiboa izan da. Aipamen berezia egin behar zaio Guraso Elkarteari, lan guzti honen atzetik egon baita dena koordinatzen” adierazi dute ikastetxetik. Udalaren laguntza eta parte hartu ez baina prestutasuna erakutsi duten auzoko gainerako eragile borondatea ere eskertu du Zabaleko zuzendaritza taldeak.

Otsailaren 13an irekiko da matrikulazio epea EAEn

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA
SAILAK DEKRETU BERRIA KALERATU DU, ETA
MATRIKULAZIO PROZEDURAN ALDAKETAK
EGONGO DIRA HAUR HEZKUNTZAKO SARRERA
MAILAN.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak otsailaren 13an abiatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpekoetan 2022-2023 ikasturterako Haur-Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aurrematrikulatzeko epea. Egutegi komuna da EAEko ikastetxe guztietarako, eta matrikulazio epea otsailaren 24ra arte egongo da zabalik.

Behin epe hori agortuta, martxoaren 28an argitaratuko dituzte behin behineko zerrendak, eta erreklamazioak egiteko epea apirilaren 4ra arte luzatuko da. Behin betiko zerrendak apirilaren 20an argitaratuko dira, hauei errekurtsioa aurkezteko epea maiatzaren 22ra arte luzatuko delarik. Itxarote zerrenden iraunaldia irailaren 15ean agortuko da.

Ohikoan bezala bi bide egongo dira eskabidea egiteko: Internet bidez urtarilaren 28ko gauerdira arte, edo aurrez aurre aukeratutako lehenengo ikastetxean, bertako idazkaritza ordutegiaren barruan. Eskatzaila bakoitzak gehienez 12 aukera

egin ahalko ditu, lehentasunaren arabera hurrengo hautatu beharko du.

Iaz baino beranduago gauzatu da, beraz, Haur-Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan matrikulatzeko epea. Tramitean dagoen Hezkuntza Lege berria da atzerapen horren arrazoietako bat. Aurreikuspenen arabera hiru-hileko honetan aurkeztuko du landutako behin betiko testua Hezkuntza Sailak.

Halaber, Eusko Jaurlaritza hasia da hainbat neurri aplikatzen, Legean jasota egongo diren zenbait aspekturi begira. Matrikulazio kanpainaren kasuan dekretu berria sartu da indarrean Euskal Hezkuntza Sistemak duen segregazio maila altuari aurre egiteko asmoz. Hartara, prozedura berriak jarriko dira martxan matrikulazio kanpainan.

Matrikulazio prozedura

Neurri berria Haur Hezkuntzako sarrera mailan hasiko dira aplikatzen, 2 urteko gelan hain zuzen ere. Maila honetan ikastetxe guztiak derrigortuta egongo dira ikasle-zaugarrientzako



plaza kopuru jakin bat erreserbatzen, izan publikoa edo izan itunpekoa. Ikasle-zaugarriak zenbat izango diren, baina zehaztu gabe dago oraindik. Aurrematrikulazioan guraso guztiei luzatuko zaie galdetegi baten arabera erabakiko da hori. Hezkuntza Sailatik azaldu dute galdetegi bost galderaz osatuta egongo dela baina ez dute argitu zer galdetuko den bertan zehazki; azaldu dutena da errentari lotutako galderarik ez dela izango. Erantzun hoerietatik zaugarritasun-indize zehat bat aterako

dute, horrek zehaztuko du gorde beharreko plaza kopurua.

Jaurlaritzak honezkero eskola-mapa berriak osatu du, eta eskola-eremu berriak definitu ditu; herrika edo eskualdeko. Datu sozio-ekonomikoen arabera zaugarritasun-indizea jarri dio eremu bakoitzari. Datuok ez ditu publiko egin Hezkuntza Sailak, baina gutxika ari dira argitara ateratzen. Izan ere, Informazio hori ikastetxe bakoitzari ari da bidaltzen, zentroak une honetan zaugarritasun-indize duen jakinarazio diote sailetik; behar-bereziko

ikasle kopurua eta atzeritar-jatorria duten ikasle kopurua kontuan hartuta. Informazio hori guztiari gehituko zaio gerora aipatutako galdeketetatik ateratako emaitzak. Orduan jakingo da zehazki ikastetxe bakoitzak gorde beharreko plaza kopurua.

Neurriak, ordea, zalantza asko ekarri ditu bai sare publikoko ikastetxeetan eta bertako guraso elkarteetan, zein itunpeko ikastetxeetan. Galdetegien eraginkortasuna eta neurriok plazen kontsolidazioan izan dezakeen ondorioa jarri dute ezbaian.

hitz
zentroa

Karmen kalea 39,
01400 LAUDIO
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22
hitz.zentro@gmail.com

- Logopedia.
- Pedagogia.
- Psikologia: umeentzako, helduentzako, bikoteentzako eta familientzako psikoterapia.
- Fisioterapia pediatrikoa.
- Gurasoentzako orientazioa

AFAk
baimendutako
HAURREN
GARAPENERAKO
eta **ARRETA**
GOIZTIARRA
lantzeko zentroa

PROFESIONAL
EUSKALDUNAK
ZURE
ZERBITZURA

bai
euskarari
zerbitzua
euskaraz

Adimen emozionala eta ongizatea, Amaurre ikastetxean ardatz

‘GUGAN’ PROGRAMA JARRI DUTE ABIAN AMAURRE IKASTETXEAN, NEURO-ZIENTZIAREN EKARPENA IKASTETXEKO EGUNEROKOAN TXERTATUZ.

Ikasleak adimen emozionala eta ongizatean hezteko programa berria aplikatzeari ekin diote Amurrioko Amaurre ikastetxean: ‘GuGan’ programa. Carmen Timoneda, neuropsicopedagogian aditu dan Gironako Unibertsitateko irakaslea, eta Kristau Eskolako beste hainbat ikastetxe izan dute programa garatzeko bidelagun. “Neurozientziaren azken urteko ondorioek oso irizpide zehatzak eta zuhurrak eskaintzen dizkigute ongizatearen oinarrien inguruan, eta bestetik, hauek ikastetxean praktikara eramateko baldintzak eta eraginkortasuna zehaztu nahi genituen”, azaldu du Amurrioko ikastetxeko zuzendaritzak.

Lau urteko prozesua izan da, baina dagoeneko “edozein ikastetxetan txertatu daitekeen pro-

grama bat eskaintzeko aukera” dago mahai-gainean; “ongizateari modu global batean erantzuteko gai dena eta praktika errealean frogatutako eraginkortasun baten bermearekin”.

Diagnostikoa eta inplikazioa

Pertsonen “garapen osoa” izan dute oinarri Amaurreko hezkuntza proiektuan, “pertsona bakoitzaren beharrianak abiapuntu hartuta, bere ongizatea eta garapena sustatzea helburu”. Gauzak horrela, barnekotasunak eta elkarbizitza positiboak berebiziko garrantzia izan dute ikastetxean. Halaber, aldaketa nabarmenak antzeman dituzte ikasleen eta familien beharrian emozionalak dagokienean. Zentroak bizi izan duen kultur aniztasunaren hazkundeak elkarbizitza eta hartue-



man dinamika berriak garatzeko beharra ere azaleratu du.

Diagnostiko berri horretatik abiatuta, hezkuntza proiektua gaurkotu dute: “Gure hezkuntza proiektuaren baitan helburuak ezin dira garatu oinarri pertso-

nalak ongi ezartzen ez baditugu”.

Pertsonen barne dimentsioa ezagutzea eta harreman positiboak lantzea dira Amaurreren helburuak. Bide horretan, GuGan proiektuak honako helburuak ditu: bullyingaren preben-

tzioa, adimen emozionalaren garapena, bizitzarako trebetasunak, ikasleen ongizatea eta bizikidetzaren positiboa.

Proiektua hezkuntza komunitate osoari zuzenduko diote; irakasle, ikasle eta familiei.

HITZORDUA HARTU EDO GUREKIN HARREMANETAN JARRI



OTSAILAK 11
ATE IREKIAK

AMAUURRE
IKASTETXEA • BIDAIDE FUNDATZIOA
KRISTAU ESKOLA

Kids&Us
language school

Erasmus+

Dionisio Aldama 16, Amurrio
Tfnoa. : 945 393 544 - info@amaurre.eus

HARTU HITZORDUA



LAUDIO IKASTOLA



“Bizitzarako pedagogia da Ikastolan lantzen duguna”

IZASKUN GOITIA, SARAY MUÑOZ ETA IZASKUN BURDAIN LAUDIO IKASTOLAKO IRAKASLEAK DIRA, ETA IKASTOLAK HAUR HEZKUNTZAN EGINDAKO IBILBIDE LUZE ETA OPAROAREN LEKUKO. 0-3 ZIKLOAK IKASTOLAKO HEZKUNTZA-PROIEKTUAN DUEN GARRANTZIA ALDARRIKATU DUTE, HAUR-HEZKUNTZAN HASI ETA BATXILERGOAN AMAITZEN DEN PROZESUA, HAIN ZUZEN ERE.

50 urte bete berri ditu Ikastolak, urte luzetako eskarmentu horretan nolakoa izan da haur hezkuntzan jorratutako ibilbidea?

Izaskun Burdain: Hiru, lau eta bost urteko haurrekin hasi genuengure ibilbidea, Jose Arrue kaleko txaletean. Ni 1980ko hamarkadan hasi nintzen lanean, gaur egun 3-6 zikloak hartzen

dituen eraikinean. Orduko hartan Lamuza Eskolako haur hezkuntzako ikasleekin elkarbanatzen genuen espazioa; gu eraikin batean eta eskola publikokoak bestean. Hartara, eskolako B ereduko ikasle eta irakasleekin konpartitzen genuen gure egunerokoa harik eta Lamuza Eskolako ikasle kopurua txikitu eta euren Haur

Hezkuntza lerroa eskolara eramanez zuten arte. Une horretan, hutsik geratu zen erakina, eta Ikastola hura eskuratzeko lanetan hasi zen, Haur Hezkuntza etapa handitzeko asmoz.

Aldi berean, Ikastoletan bi urteko gelak zabaltzen hasi ziren. Gure Ikastola izan zen hori egiten lehenengotariko bat, Iñaki Mendigurenen ahalegi-

nari esker. Oraindik ez genuenez Laudio Txikiko bigarren erakina lortu, Lamuza Parkeko lokaletara eraman genuen bi urteko gela, 1991n.

Izaskun Goitia: Lamuza Parkean geundela hiru gela izatera ere iritsi ginen, eta lokal berri bat alokatu behar izan genuen. 2002an Laudio Txikiko bigarren eraikina lortuta ge-

nuela gora ekarri genuen bi urteko gela, 2000. urtean jaiotako ikasleekin.

Izaskun Burdain: Iritsi berri-tan 0-3 zikloa antolatze lanetan hasi ginen, eta erakinean egindako lehenengo obra gauzatu genuen. Ez genekien asko adin tarte horren inguruan, baina, ausartu egin ginen, gerotik aurrerapauso itzelak

**IKASTOLAN
MATRIKULA
ZABALIK**
OTSAILAK 24 arte



**ikasiz
hezi,
Ikastolan
hazi**

LAUDIO IKASTOLA

eman ditugu, atzean utzitako urte guztien eskarmentuari esker, batez ere.

0-3 zikloarekin hasi zinetenetik gaurdaino Haur Hezkuntzan aurrerapauso handiak eman dituzuela azaldu duzue. Zeintzuk dira aldaketa sakon horiek?

Izaskun Burdain: Haurren neurogarapenaren ikerketak aurrerapen ikaragarria egin du azken urteetan. Azken hamarkadan hezkuntza mailan aldaketa handia gertatu da, lehen ez genekizkien gauza pilo dakizkigu orain, eta guzti hori gure hezkuntza-programan txertatu dugu.

Saray Muñoz: Asko aldatu da umeein egoteko eta hauek ikusteko modua; gure begirada guztiz aldatu da. Etengabe ko eraldaketan murgilduta jarraitzen dugu oraindik ere. Izan ere, formazio berri bat jaso dugu duela gutxi neurogarapenak eta mugimendu fisikoak duen eraginaren inguruan. Hori oinarritzat hartuta, eraldaketa asko eta asko egin ditugu.

Lehen irakasleok ginen heziketa prozesuaren zentroa, eta sinetsita geunden gure egin beharra zela haurrei gauzak irakatsi eta eginaraztea. Uste genuen bakarrik, ikasten zutela guk irakatsitakoa, ez zirela euren kabuz ikasteko gai. Ez hori bakarrik gure eskaintza ere, estimuluz beteta zegoen; geroz eta kolore gehiago, geroz eta jostailu gehiago... haurrak gure atzetik zetozen zerbait ziren, ez ziren benetan heziketa prozesuaren zentroa. Hori irauli egin dugu.

Izaskun Burdain: Hausnarke eta formazio horretatik etorri dira gainerako aldaketa guztiak; erabiltzen ditugun materialak eta espazioa bera ere asko aldatu dira. Haurren den-

borak eta epeak errespetatzen ikasi dugu. Mugimendu askearekin ikusi dugu hori, esaterako. Haurrak gai dira ibili arteko prozesua euren kabuz egiteko, aukerak eman behar zaizkie bakarrik. Espazioari eta materialari erreparatuz soilik haurren mugimendua sustatu dezakegu.

Izaskun Goitia: Oso gutxira eraldaketa beharrak Haur Hezkuntzako bigarren ziklora egin zuen jauzi, eta formakuntzan sakontzen jarraitu genuen. Aldaketa horien adibide nabarmenetako bat da espazio irekien erabilera. Ohituta geunden gela itxietan lan egitera, bakoitza bere programazioarekin, hori zeharo aldatu da, ikasgeletako ateak zabalik daude beti, askoz dinamikoagoa da dena.

Nolako laguntza eskaini du Ikastolak eraldaketa prozesu guzti horretan?

Izaskun Burdain: Ezinbestekoa izan da Audio Ikastolak zein Ikastolen Elkartek eskainitako babesa. Gurekin batera, Aresketa eta Etxaurren Ikastoletan ere bi urteko lerroarekin hasi ziren. Hasieran uste genuen hiru urteko gelaren oso antzekoa izango zela, baina azkar jabetu ginen ezetz. Iñaki Mendigureni esker lortu genuen hiru Ikastoletako irakasleak hilabeteetan behin elkartzea, eta guretzat berria zen horri elkarrekin aurre egitea. Oso garai politak izan ziren. 0-1 urtekoekin hasi ginenean ereitsu hasi genuen ibilbidea, eta beste hainbeste Ikastola bisitatu genituen, bertako proiektuak eza-gutzeko.

Familiek ere parte hartze handia dute hezkuntza prozesuan, ezta?

Izaskun Goitia: Hezkuntza-prozesuko parte aktibo dira familiak. Asko tematzen gara

gurasoekin konpartitzen Haur Hezkuntzan garatzen diren prozesu desberdinak. Etengabe ari gara familiekin hezkuntza-proiektua azaltzen, komunikazio zuzena da gurea.

Saray Muñoz: Hemen lantzen dugunak isla du familiengan, bizitzarako pedagogia da hemen lantzen duguna. Etxeko-tze prozesuan, esaterako, denbora asko igarotzen dugu familiekin, gauza asko konpartitzen ditugu. Familiek euren beldurak transmititzen dizkigute, euren barrenak askatzen dituzte, eta irakasle-guraso lotura asko estutzen da. Lasaitasuna ematen diegu familiei.

Nola integratzen da haur hezkuntza Ikastolako hezkuntza-prozesu guztiarekin?

Izaskun Burdain: 0 urtetatik hasi eta 18 urtera arte luzatzen den hezkuntza-prozesua da Ikastolakoa, eta Audio Txikik pisu handia du bertan; izan ere, Haur Hezkuntzan ezartzen

“0 urtetatik hasi eta 18 urtera arte luzatzen den hezkuntza-prozesua da Ikastolakoa, eta Audio Txikik pisu handia du bertan”

dira ibilbide akademikoaren oinarriak.

Asko egin dugu lan pedagogiak berebiziko garrantzia izan zezan Haur Hezkuntzan. Ez dugu Audio Txiki hartzaindegi bat bezala ikusia izatea nahi. Noski gure alorrik inportanteena haurren zaintza dela, baina beste ikuspuntu bat txertatu nahi diogu, oinarri pedagogiko bat dago atzean.

Izaskun Goitia: Uste dut hori izan dela eraldaketarik sakone-na, 0-6 etapa hezkuntza-proiektuaren parte dela aitortzea eta egikaritzea. Haur Hezkuntza ez da burbuila isolatu bat.

Saray Muñoz: Bi ziklotan banatuta dago Haur Hezkuntza, baina batetik besterako trantsizioa asko zaintzen dugu; Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako urratsa zaintzen dugun modu berean. Zikloen barruan ere jakitun gara beharrak desberdinak direla adin bakoitzean, hor jarri dugu erronka orain.



**ZATOZ GURE
IKASTOLA
EZAGUTZERA**

OTSAILAK 11 ATE IREKIAK

Hitzordua eskatu:


94 672 67 37

audio@ikastola.eus

www.audioikastola.eus



LAUDIO
ikastola



HARRERA; EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

GAZTE ETORRI BERRIAK EUSKARARA HURBILTZEKO PROGRAMA JARRI ZUEN ABIAN LAUDIOKO UDALAK HERRIKO IKASTETXE GUZTIEKIN ELKARLANEAN. HIZKUNTZA ETA HIZTEGIA LANTZEKO ESPAZIO BAT IZATETIK HARAGO; NERABE ETORRI BERRIEI ELKARREN ARTEAN HARREMANDU, BABESTU, SARETU ETA HERRIA EZAGUTZEKO AUKERA ESKAINI DIE EUSKARAK.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Bosgarren ikasturteari heldu dio Laudioko 'Etorparri' programak, udalerriko gazte etorri berri ez euskaldunak euskarara hurbiltzeko zerbitzuak. Etorri berriak euskarara hurbiltzea eta euskara ikasteko prozesuan tresnak eskaintzea da Laudioko Udalak, udalerriko ikastetxeekin elkarlanean, 2019an abiatutako programaren erronka nagusia. Laudio Institutuko, La Milagrosa ikastetxeko eta Laudio Ikastolako DBHko ikasleek parte hartzen dute, honezkero bere hirugarren edizioan sartuta dagoen programan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolatutako gazte migrante askok aurkitzen duten errealitatea da ikaste-

txe berri batean hasi eta beren buruak euskarazko murgiltze eredu baten barruan aurkitzea. Bizitoki berri bat, ikastetxe berri bat eta hizkuntza berri bat, zerotik hasteko abiapuntu hirukoitza.

Ongi etorria euskaraz

Egitasmoaren helburua, ordea, euskara ikaste hutsetik harago doa. "Hizkuntza ikasteko badituzte baliabideak eguneroko eskola orduetan", azaldu dute egitasmoaren sustatzaileek, "euskara oraindik ondo ezagutzen ez duten herri baten giltza izatea du xede programak". Funtsean gazte etorri berriek euskara maila jakin bat eskuratzetik harago, euskaratik eta euskaraz Laudiora ongi etorria ematea. Euskara euren bizitoki berria ezagutzeko tresna bilakatu eta adin bertsuko beste

"Etorri berriak euskarara hurbiltzea eta euskara ikasteko prozesuan tresnak eskaintzea da programaren helburua"

gazte batzuekin harremantzeko bidea izatea dute helburu

Horretarako aisialdia du ardatz programak, euskaraz disfrutatzeko espazio atsegin bat eraikiz. Astean egun batez elkartzen dira programan parte hartzen duten gazteak, eta asanbladan adosten dituzte egingo dituzten ekintza desberdinak, non beti ere euskarak protagonismo berezia izango duen. 10-15 lagun elkartzen dira astero, eta Laudio Institutuko azpiegitura erabiltzen dute horretarako, baina jarduera asko ikastetxean egiten badituzte ere, beste ekintza batzuk herrian garatzen dituzte. Izan ere, herria ezagutzea eta bertan murgiltzea programaren beste helburuetako bat da. Astean behin ordu eta erdiko eskolaz kanpoko jarduera bat da honakoa, euskara esparru

ez horren akademiko batetik ezagutzeko.

"Parte hartzea guztiz boluntarioa da. Zaila da nerabezaroan interes jarraitu bat mantentzea, motibazioa gorabeheratsua da eta, baina ikasturte osoan zehar 12 bat laguneko taldetxo bati eutsi diogu. Horrek argi erakusten du badela eskaintzarekiko interesa eta beharra ere", azaldu du Iratxe Letonak, egun jardueraz arduratzen den hezitzailea. "Orotariko ekintzak egiten ditugu. Kirol desberdinak praktikatzeko, arte diziplina desberdinak baliatzen dira ere ariketak planteatzeko... Txangoak ere egiten ditugu; izan ere askok ez dute aukera Laudio ondo ezagutzeko, horregatik aukera aprobetxatzen dugu parke desberdinak bisitatu eta bertan jolasak egiteko. Modu horretan non-

ERREPORTAJEA

dik mugitu edota gauzak non erosi ikasten dute” zerrendatu du Letonak.

Hiztegia lantzeko bestelako ariketak ere egiten dituzte, “magistralagoak”. Horiei esker gainerako jarduerak burutu ahal izateko hizkuntza gaitasunak eta komunikatzeko eskuratzen dituzte.

Lotsak alboratuz

Euskara ikasteko eskolak dira Laudioko Udalak abiatutako programa honetako saioak, baina hizkuntza zuzentasunak ez du aparteko garrantzirik, ez idazmena edo gramatika lantzea bertan. Aholkotasuna eta entzumena lantzea dira helburu nagusiak, gazte etorri berriak euskara entzun eta erabiltzera ohitzeko.

Topaleku

Jatorri anitzeko ikasleek osatzen dute egitasmoaren mui-na den gazte-taldea. Ikasturte honetan Perutik, Paraguyatik, Nikaragutatik, Kolombiatik, Brasiletik, Andaluziatik, Sahararik, Marokotik, Kanariar Uharteetatik edota Ukrainatik etorritako gazteak baten dira Laudio Institutuan astero. “Gazte hauetako askok, gainera, beste hainbat he-

Euskara ardatz bizi-esperientzia antzekoak izan dituzten kideekin elkartzeko espazioa ere bada programa

rrialdetatik migratu dute, eta, beraz, hizkuntza eta bizipen gehiago dakarte eurekin” nabarmendu du Letonak.


Hartara, bizi-esperientzia antzekoak izan dituzten kideekin elkartzeko espazio bezala ere identifikatzen dute ‘Etorparri’ programak eskainitako aukera. “Formakuntza bat jasotzeaz harago, ikusten dute eurak ere badirela taldeari ezagutza eskaintzeko gai” azaldu du Iratxe Letonak. Euskara landuz beste

“Nerabeak ere badira taldeari ezagutza eta formakuntza eskaintzeko gai”

kide batzuekin egoteko aukera eskaini die programak; herrian saretzen, euren artean gauza desberdinak konpartitzen eta elkar babesten. “Egia da programak euskararen ezagutza ere helburu jakin batzuk dituela, baina bestelako dinamikak ere sortzen dira modu naturalean. Hizkuntza baten baitan sozializatzen dauden heinean beste pertsonekin harremanak sortzen ari direlako ere; balio handia du horrek”.



 **La Milagrosa Ikastetxea**
Laudio
WWW.LAMILAGROSALAUDIO.EUS



100+ *bihotzetan jarraitzen dugu*
LA MILAGROSA IKASTETXEA

MATRIKULA ZABALIK
2 URTEKO GELA DOHAINIK
 **94 672 07 01**
 ZUZENDARITZA@LAMILAGROSALAUDIO.EUS
ZATOZ GU EZAGUTZERA!

ARTIKULUA

Ugaritu egin da ikasteko eta talde lanak egiteko espazioen eskaintza



Laudioko Udal Liburutegi berriak iaz zabaldu zituen ateak. **Laudio Udal**

AZKEN URTEETAN UGARITU EGIN DIRA MOTA HORRETAKO ESPAZIOAK ESKUALDEAN, ZEGOEN BEHARRARI ERANTZUNEZ.

Duela hamarkada bat, ikasketara bideratutako espazioak ez diren horren ohikoak eskualdean. Udal liburutegiak ziren, funtsean, horretarako erabili zitezkeen gune bakantariakoak, baina hainbat desabantaila zituzten. Kasu gehienetan, ez zuten horretarako berariaz prestatutako espaziorik eta, ondorioz, ezin zen talde-lanik egin, adibidez. Horrez gain, liburutegietako irekiera eta itxiera ordutegiek ere ikasleek aukerak murrizten zituzten.

Baina azken urteetan nabarmen aldatu da egoera. Gaur egun, Aiaraldeko udalerri gehienek dituzte ikasketetara propio bideratutako espazioak. Laudion, adibidez, iaz ireki zuten udal liburutegi berria, eta ikasleentzako gela berezituak atondu zituzten bertan, bakarkako zein taldekako lanak egiteko.

Orozkoen Gaztetxokoa baliatzen da azterketa garaian ikasteko gune gisa. Arrankudiaga-Zollon, aldiz, Udalak lonja bat du alokatuta herriko elizaren aurrean. Bi gela daude bertan, ikastaroak egiteko bata eta ikasgela gisa erabil-

tzeko bestea, eta biak ala biak daude erabilgarri. Udaletxean eskatu daiteke giltza. Artziniegan udaletxe zaharrean atondu zuten ikasgela 2018an. Erabili nahi duten ikasleek txartel bat eskatu behar dute udaletxean.

Urduñan Alondegian daude ikasteko espazioak. Bi gune daude bertan: taldekako lanak egiteko eta ixilik ikasteko. Alondegiaren ohiko ordutegian erabili daitezke biak.

Aiaran, aldiz, laster egongo da ikasgela berria erabilgarri. Luiaondoko Patxita Etxean atondu nahi du Udalak espazioa, eta udarako amaitu nahi dituzte obrak.

Amurrioko Gaztetxea

Amurrion udal liburutegiak ikasketak gela dauka, eta aste-ko egun guztietan dago irekita abendua, urtarrila, maiatza eta ekainean.

Hala ere, eskaintza hori ez da nahikoa, Amurrioko Gazte Asanbladako kideen iritziz. Gauzak hala, ikasgela atondu zuen eragile horrek Amurrioko Gaztetxean 2020an, azterketa garaian murgilduta daude gazteek erabili zezaten.

Aresketa Ikastola
Aresketa auzoa, 2 01470 Amurrio (Araba)

www.aresketaikastola.eus
aresketaikastola@aresketaikastola.eus

aresketa_ikastola
945 89 03 60

AURREMATRIKULAZIOA
2023ko otsailaren 13tik 24ra

AURKEZPEN*

otsailak 8 [17:00etan]

Aresketa Ikastolan

[*Edo hitzordua eskaiguzue 945890360 telefonora deituz]

Elkarlanerako espazioa sortu dute Eskola Publikoetako zuzendariek

HILABETEAN BEHIN EGITEN DUTE AIARALDEKO ESKOLA PUBLIKOETAKO ZUZENDARIEN ARTEKO KOORDINAZIO BILERA, ELKARLANA SUSTATU ETA ESKOLA PUBLIKOEN LANARI IKUSGARRITASUNA EMATEKO ASMOZ.

Koordinaziorako topagunea sortu dute Aiaraldeko Eskola Publikoetako zuzendariek. Espazio berri honek elkarlana sustatzea eta eskola publikoan egiten den lana ikusaraztea du helburu.

Orotara, hamasei zentro publiko daude eskualdeko bederatzirik udalerritan, maila guztientzako hezkuntza eskaintzarekin: haur eskolak, lehen hezkuntzako zentroak, lanbide heziketako zentroak, institutuak edota pertsona nagusientzako zentroak.

Hainbat izan dira aurten zuzendarien koordinaketarako topagunetik bideratutako ekintzak. Horien artean nabarmenetako bat Jose Antonio Fernan-

dez Bravo pedagogoaren hitzaldia izan zen.

Fernandez Bravo

Urriaren 8an eskaini zuen hitzaldia Jose Antonio Fernandez Bravok, Amurrio Antzokian elkartuziren 200 hezitzailearen aurrean. Hiru orduko trebakuntza saioa eskaini zuen matematikan adituak. 14 urtez Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaslea izan da Fernandez Bravo, baina azken urteotan unibertsitateko irakasle bezala dihardu. Matematikaren didaktikan aditua da, hezkuntza eta matematikaren ikaskuntzari buruzko 100 lan baino gehiago argitaratu ditu, eta hezkuntza berrikuntzaren inguruan ikertzen du.



Aiaraldeko eskola publikoaren hainbat zuzendari, Fernández Bravorekin

LAU DIO BHI .eus

- DBH eta BATXILERGO modalitate guztiak
- Eskola-saioak goizez
- Hedatze ekintzak arratsaldean
- Eleanitza Proiektua
- Erasmus + Proiektua
- Aniztasun trataera zabala
- Jantokia eta garraioa diruz lagundua
- LANBIDE HEZIKETA

**Helmuga
euskarri
ibilbidea
helburu!**



**23-24
MATRIKULA
ZABALIK!**

**OTSAILAREN
13TIK 24RA**

Euskara klasetik harago erabiltzea, gainditzeke dagoen ikasgaia

EUSKARAREN KALE ERABILERAREN AZKEN NEURKETEK ONDORIO ARGI BAT UTZI DUTE AIARALDEAN: HIZKUNTZAREN EZAGUTZAK EZ DUELA BERE ERABILETA (ETA, ONDORIOZ, BIZIRAUPENA) BERMATZEN.

Euskararen ezagutzak gora egin du azken urteetan. Datuei erreparatzea baino ez dago: 1981. urtean Laudion 1.133 euskaldun zeuden, 1.070 ia-euskaldun, eta 18.044 erdaldun. 2021eko datuek, aldiz, oso bestelako paisaia erakutsi dute: gaur egun 6.270 euskaldun dauka Aiaraldeko herri populatuean, 3.612 ia-euskaldun eta 7.998 erdaldun.

Joera hori errepikatu egiten da eskualdeko gainontzeko herrietan. Orozko eta Arrankudiaga-Zollo dira salbuespenak, euskaldunak gehiengoa izan direlako uneoro bi udalerrri horietan azken lau hamarkadetan.

Herri guztietako datuak batuta, hauek dira emaitzak: Aiaraldean bizi diren 41.375 pertsonetatik 14.868 dira euskaldunak, 8.289 ia euskaldunak eta 18.218 erdaldunak. Hau da, eskualdeko biztanleen %58,38 da euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai.

Hezkuntzan nagusi

Hezkuntza esparruan ere al daketa nabarmenak egon dira azken hamarkadetan. Amurrión, adibidez, 1987-1988 ikasturtean zeuden ikasleen gehiengoa (1.339) A ereduan matrikulatuta zegoen, eta 213 baino ez zeuden D ereduan. Iaz, aldiz, oso bestelakoa zen egoera: 23 ikasle baino ez zeuden A ereduan, eta 1.539k ikasten zu-

ten D ereduan. Hau da, egoerak erabateko buelta eman du hiru hamarkadetan.

Baina datu guztiak ez dira horren baikorrak. Soziolinguistika Klusterrak Laudion eta Orozkon eginiko azken kale erabilerak neurtzeko erreparatu baino ez dago. Bi udalerrri horietan jaitsiera nabarmena egon da azken 10 urteetan euskararen kale erabileran. Laudion 4

D ereduak ia erabateko nagusitasuna lortu du Aiaraldean

puntukoa izan zen beherakada eta Orozkon (euskaldun gehien dituen Aiaraldeko udalerrria) 34 puntukoa. Urduñan, aldiz, igoera leuna jaso zen erabileran.

Galdera eta ondorio asko atera daitezke emaitza horietatik. Horien artean, hau: euskara ezagutza handia egoteak ez duela hizkuntzaren erabilerara (eta, ondorioz, biziraupena)

bermatzen. Esparru akademikora eramanda, euskarak klasetik kalera salto egin behar duela; esparru formaletik informaletara, alegia.

Ondorio hori ez da berria. Erakunde publikoek eta euskalgintzako agenteek urteak darमततते hori lortzeko ekimen eta dinamikak antolatzen. Gurasolagun eta Berbalagun egitasmoekin, adibidez.



Herri guztietako datuak batuta, hauek dira emaitzak: Aiaraldean bizi diren 41.375 pertsonetatik 14.868. Aiaraldea.eus



MATRIKULA ZALABIK

Otsailaren 13tik 24ra



ANTZINAKO ANDRA MARIA IKASTETXEA
URDUÑA

Aukerak sortzen

- + HAUR HEZKUNTZA
0, 1 eta 2 urte dohainik
D eredu
- + LEHEN HEZKUNTZA

- + DBH
- + BATXILERGOA
- + GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

ATE IREKIAK
Bisitak hitzorduarekin

INFORMAZIOA:
orientacion@colegiojosefinos.com
945 384 830